



Gobernuaren Bizkaiko Ordezkariordeztzak, Lurralde Politikako Ministerioari atxikita dagoenak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean emandako eginkizun guztiak betetzen ditu, eta ekimenak koordinatu, gainbegiratu eta bultzatzen ditu Estatuko Administrazio Orokorren eta horrek Bizkaian dituen erakunde publikoen zerbitzu guztiak hobetzeko.

### Ematen ditugun zerbitzuak

- |  |   |
|--|---|
| 1 Herritarrentzako informazioa eta arreta.   | 10 Farmazia ikuskaritza.  |
| 2 Emakumeen aurkako indarkeria.  | 11 Kanpo osasuna.   |
| 3 Espainian dauden etorkinentzako zerbitzuak.  | 12 Landare osasuna: inportazioko/esportazioko kontrol fitosanitarioa.     |
| 4 Enpleguarekin edo emigranteekin lotutako zerbitzuak.                               | 13 Albaitaritza osasuna: inportazioko/esportazioko albaitaritza kontrola. |
| 5 Atzerriko unibertsitate-tituluen homologazioa/baliokidetasuna eta tituluak egitea. | 14 Itsas-arrantza.  |
| 6 Lehergailuekin eta pirotekniarekin zerikusia duten espedienteak bideratzea.        | 15 Tasak itzultzea.   |
| 7 Desjabetzeak. Balio justuaren espedienteak bideratzea.                             | 16 Administrazio zehapenei dagozkien espedienteak.                        |
| 8 Estatuaren esku-hartzea larrialdietan edo hondamendietan.                          | 17 Administrazio baimenak eskatzea.                                       |
| 9 Nazioarteko txertaketa.  | 18 Enpresentzako eta beste administrazio batzuentzako zerbitzuak.         |

### Kalitate-konpromisoak

- 1 Atzeritartasun-baimenak berritzeko eskaera telematikoak, aurkeztu eta gehienez ere 10 egun balioduneko epean grabatzea.
- 2 Ikasketetarako, tratamendu medikorako eta adingabeen oporretarako bisen gobernu-txostenak, eskaera egin eta gehienez ere 15 egun balioduneko epean tramitatzea.
- 3 Nazioarteko adopzioetarako gobernu-txostenak, eskaera egin eta gehienez ere 15 egun balioduneko epean tramitatzea.
- 4 100 kg-tik gorako artikulu piroteknikoak jaietan erabiltzeko baimen eskaerak, nahitaezko txostena jaso eta gehienez ere 10 egun balioduneko epean ebaztea.
- 5 Edozein bidetatik jasotako kexei, Gobernuaren Ordezkariordeztan jaso eta gehienez ere 15 egun balioduneko epean erantzutea.
- 6 Itzuli diren Emigranteen Ziurtagiriak, gehienez ere 15 egun balioduneko epean ematea, beharrezko dokumentazio guztia izanez gero.
- 7 Itzulitako espainiarren behar bereziei erantzuteko txostena egitea eta laguntzen espedientea bidaltzea (1493/2007 Errege Dekretua), aurkeztu eta gehienez ere 15 egun balioduneko epean ebazteko.
- 8 Kaleratzeagatiko epaiketetan izapide-aldiko soldaten eskaerak tramitatzea eta ebazpen proposamena, aurkeztu eta gehienez ere 10 egun balioduneko epean prestatzea, tramitatzeko beharrezko dokumentazio guztia izanez gero.
- 9 Larrialdiek edo hondamendiek eragindako kalteei aurre egiteko laguntzak eta diru-laguntzak eskatzeko espedienteak, aurkeztu eta gehienez ere 30 egun balioduneko epean bideratzea eta ebaztea, tramitatzeko beharrezko dokumentazio guztia izanez gero.
- 10 Gomendatutako txertoak, kontsulta medikoan egon eta gehienez ere egun baliodun batean jartzea.
- 11 Informazioa eskatzen duten mezu elektronikoko guztiei, Atzeritartasunekoak izan ezik, mezua jaso eta gehienez ere 3 egun balioduneko epean erantzutea.
- 12 Atzeritartasunari buruzko informazioa eskatzen duten mezu elektronikoko guztiei, mezua jaso eta gehienez ere 7 egun balioduneko epean erantzutea.
- 13 Genero-indarkeriaren biktimei laguntzea, eskatu eta gehienez ere 2 egun balioduneko epean.
- 14 Genero-indarkeriak eragindako hildakoen (emakumea eta/edo seme-alabak), larri zauritutakoen eta genero-arrazoiek edo sexu-arrazoiek eragindako erailketen edo giza hilketen fitxa eta jarraipen-txostena egitea, eta plataforman grabatzea, jakinarazi eta gehienez ere 2 egun balioduneko epean.

#### Kartaren unitate arduraduna:

#### Gobernuaren Bizkaiko Ordezkariordeztako Idazkaritza Nagusia

Federico Moyua Plaza 5, Bilbao  
secretario\_general.bizkaia@correo.gob.es  
944 50 90 16

[www.paisvasco.map.es](http://www.paisvasco.map.es)

<https://sede.administracionespublicas.gob.es/>

[@SubGobBizkaia](https://twitter.com/SubGobBizkaia)

Editorea: Lurralde Politikako  
Ministerioa  
NIPO: 204230073



Kontsultatu hemen  
zerbitzu-kartaren testu osoa